

Buletineko gaiak:

1. *Familien asebetetze galdetegia*
2. *Errigoraren kanpaina, martxan*
3. *Truk Txapelketa, bihar*
4. *Oiartzoko ate irekiak: martxoak 17*
 - *Apartekoak*

Temas del boletín:

1. *Cuestionario de satisfacción para las familias*
2. *En marcha la campaña de Errigora*
3. *Campeonato de truk mañana*
4. *Puertas abiertas de Oiartzo: 17 de marzo*
 - *Otros temas*

Berri orokorrak

1. Familientzat galdetegia

Astehenean, Alexiatik jakinarazpen bat jasoko duzue **Haurtzaro Ikastolako familien asebetetze galdetegiarekin**. Haurtzaro Ikastolako eremu ezberdinekiko zuen asebetetze maila jakin nahi dugu, emaitzak aztertu eta hobekuntza plan bat bideratu ahal izateko. Zuen partehartzea ezinbestekoa da galdetegi honetan jasotako emaitzak ahalik eta zehatzenak eta esanguratsuneak izan daitezen. Beraz, mesedez eskatzen dizuegu, denbora tarte bat eskaini betetzeko, elkarrekin aurrerapausoak eman ditzagun.

- Betetzeko epea: **martxoaren 14tik 25era (biak barne)**.

- **Familia bakoitzeko erantzun bat** ematea eskatzen dizuegu.

- Galdetegia guztiz anonimoa da, baina zuen ikastolako erabiltzaile eta pasahitza (ikastolako postarako erabiltzen duzuen) beharrezkoak dira galdetegira sartzeko.

Edozein duda baduzue, gurekin harremanetan jarri mesedez.

Temas generales

1. Cuestionario de satisfacción

El lunes, desde Alexia recibiréis una comunicación con el cuestionario de satisfacción de las familias de Haurtzaro Ikastola. Queremos conocer vuestro grado de satisfacción con los diferentes ámbitos de la ikastola para poder analizar los resultados y orientar un plan de mejora. vuestra participación es imprescindible para que los resultados recogidos en este cuestionario sean lo más concretos y significativos posibles. Así que os pedimos que nos dediquéis un tiempo para que podamos avanzar juntos.

- Plazo: **del 14 al 25 de marzo (ambos inclusive)**.

- Se requiere dar **una respuesta por familia**.

- El cuestionario es totalmente anónimo, pero el usuario y contraseña de vuestra ikastola (la que utilizáis para el correo de la ikastola) son necesarios para acceder al mismo.

Si tenéis cualquier duda, podéis poneros en contacto con nosotros-as.



2. Errigoraren udaberriko kanpaina, martxan

Abiatu dute **aurtengo Eskutik eskura**

kanpaina Errigorako kideek: "Nafarroa hegoalde eta erdialdeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak kontsumitzeko bestelako modu bat, bestelako ekoizpen eta banaketa-ereduen bila".

Informazioa eta eskariak (martxoaren

30era arte): www.errigora.eus. **Bertan ordaindu, eskaria egitearekin batera.**

Banaketa egunak: **maiatzak 12 eta 13**. Erosketa egin ondorengo emailean jasoko dituzue zehaztasunak.

3. DBH4koek antolatutako Truk Txapelketa, bihar

HIRU HIRUKO txapelketaren bigarren jardunaldia egingo dute **bihar larunbata, martxoaren 12, 16:00etan ikastolako frontoian.**

DBH4ko ikasleak ikasturte bukaerarako bidaia finantzatzeko antolatutako truk txapelketa izango da. Sari bikainak izango dira berriz ere, ANIMATU!

4. Oiartzoko ate irekiak: martxoak 17

Martxoaren 17an, arratsaldeko 17:00etik 20:00etara Oiartzoko ateak irekita egongo dira ikastola ezagutu nahi duen edonorentzat.

Izen-ematea eta informazio gehiago Oiartzoko webgunean: www.oiartzoikastola.eus/ate-irekiak/

2. En marcha la campaña de primavera de Errigora

Los miembros de Errigora **han puesto en marcha la campaña 'Eskutik eskura'** de este año: "aceite de oliva virgen extra del sur y centro de Navarra, conservas, arroz, pasta y otra forma de consumir legumbres en busca de otros modelos de producción y distribución".

Información y solicitudes (hasta el 30 de marzo): www.errigora.eus. **Pagad en la misma página web, al hacer el pedido. Reparto: 12 y 13 de mayo.** Todos los detalles, en el email que recibiréis tras hacer el pedido.

3. Campeonato de truk organizado por DBH4, mañana

El frontón de la **ikastola acogerá mañana sábado, 12 de marzo**, la segunda jornada de campeonato TRES DE TRES, a las **16:00**.

Se trata de un campeonato de truk organizado por el alumnado de 4º de la ESO para financiar su viaje a final de curso. Habrá de nuevo magníficos premios, ¡ANIMAOS!

4. Puertas abiertas de Oiartzo: 17 de marzo

El **17 de marzo, de 17:00 a 20:00 de la tarde**, las puertas de Oiartzo estarán abiertas a todo aquel que quiera conocer la ikastola.

Inscripciones y más información en la web de Oiartzun: www.oiartzoikastola.eus/ate-irekiak/



Apartekoak

1. Udan Saharako haurrak etxean hartzeko deialdia

AURTEN BAI! AURTEN ELKARTUKO GARA!

Pandemiak mundu osoa hankaz gora jarri du, baita saharar herriaren egunerokotasuna ere. Pandemiaren ondorioz, 2020an eta 2021ean Oporrak Bakean programa bertan behera geratu zen. Covid-19ak gogor jo ditu saharar errefuxiatuen kanpalekuak, baina gainera, 2020ko azaroaren 13an su-etena bertan behera geratu zen, eta soldaduak gerran daude.

Saharar herriak gure elkartasuna behar du oraindik, eta haien ondoan egongo garela sentiaraziko diegu, beren lurraldera, Mendebaldeko Saharara, itzuli arte. **Gure proiektuarekin bat egin nahi duzu?**

Uda honetan haur saharar bat etxean hartu nahi baduzu edo programari buruz informazio gehiago jaso nahi baduzu, hurbildu zaitetz **martxoaren 18an, arratsaldean, Oiartzungo plazan** jarriko dugun haimara edota jarri gurekin harremanetan **605 713 692 telefono zenbakian** edo **sahara_oiartzun@hotmail.com** helbide elektronikoa (izena emateko azken eguna, martxoak 27).

El Watan elkarte

Otros temas

1. Llamamiento para acoger niños-as saharauis en verano

¡ESTE AÑO SÍ! ¡ESTE AÑO NOS JUNTAREMOS! La pandemia ha puesto al mundo entero patas arriba, así como el día a día del pueblo saharauí. Como consecuencia de la pandemia, en 2020 y 2021 se suspendió el programa Vacaciones en Paz. La Covid-19 ha golpeado fuertemente los campamentos de refugiados saharauis, pero además el 13 de noviembre de 2020 se suspendió el alto el fuego, por lo que los soldados saharauis están en guerra.

*El pueblo saharauí sigue necesitando nuestra solidaridad, y les haremos sentir que estaremos a su lado hasta que vuelvan a su tierra, al Sáhara Occidental. **¿Quieres unirte a nuestro proyecto?***

*Si estás interesado/interesada en acoger a un niño/niña saharauí este verano, o quieres más información acerca del programa, puedes acercarte **el día 18 de marzo a la plaza de Oiartzun, por la tarde**, a la haima que vamos a poner o ponerte en contacto con nosotras en el **605 713 692** o **sahara_oiartzun@hotmail.com** (último día para solicitudes: 27 de marzo).*

Asociación El Watan



2. Korrika laguntzeko deialdia

Hemen da 22. Korrika! Berriz ere, zure laguntzari esker Euskal Herriko bazter guztietara zabalduko dugu euskararen aldeko mezua.

Dakizuenez, KORRIKAren helburu garrantzitsuenetakoa da euskalduntze-alfabetatzerako bitartekoak eskuratzea eta euskaltegien zein gau eskolen lana sustatzea. **22. KORRIKAK jasotzen duen dirua, beraz, Euskal Herri osoko gau eskolei eta euskaltegiei laguntzeko erabiliko dute.**

Atxikitako orrialdean duzue laguntza emateko bideen gaineko informazio guztia.

3. Gure hilak oroitzeko eguna elkarrekin antolatzeke deia

Bihar, martxoak 12 larunbata, 16:30ean jarri dute hitzordua Abaraxka ludotekan, denon proposamenekin martxoaren 19a antolatzeke: "Gogoratu GURE HILAK OROITUko ditugula martxoaren 19an, 17:00etan Ibergainen, bertan baitugu Intxaurrondoa landatua".

Zure proposamena luzatzeko oraindik garaiz zabilta, Abaraxkara hurbilduz edota [inkesta hau betez](#).

2. Llamada de ayuda a Korrika

Aquí está Korrika número 22. De nuevo, gracias a tu colaboración difundiremos nuestro mensaje a favor del euskera en todos los rincones de Euskal Herria.

Como sabéis, uno de los objetivos más importantes de KORRIKA es conseguir medios para la euskaldunización-alfabetización y fomentar el trabajo de euskaltegis y escuelas nocturnas. El dinero que reciba Korrika se destinará, por tanto, a ayudar a las escuelas nocturnas y euskaltegis de toda Euskal Herria.

En la página adjunta se puede consultar toda la información relativa a los canales de ayuda.

3. Organizar el día en recuerdo de nuestros muertos-as

Mañana, sábado 12 de marzo, la cita es a las 16:30 en la ludoteca Abaraxka para organizar el 19 de marzo con las propuestas de todos-as: "Recordad que HOMENAJEAREMOS A NUESTROS-AS MUERTOS-AS el 19 de marzo a las 17:00 en Ibergain, donde tenemos el nogal plantado.

Aún estás a tiempo de hacer tu propuesta en Abaraxka o [rellenando esta encuesta](#).



4. Euskal Udalekuak

UDA BETE ABENTURA, EUSKARAZ, ZURE ESKURA!

Udan ere euskaraz bizi nahi duenak horretarako aukera ezin hobea du EUSKAL UDALEKUETAN (**LH1etik aurrera**). 40 urte baino gehiago pasatu dira **euskara hutsezko udalekuak** antolatzen hasi zirenetik, eta gaur egun ere hasiera hartako asmo eta ilusio berberak dituzte **Abaigar, Goñi eta Bernedoko Euskal Udalekuetan** dabilen hezitzaileek: "Lan boluntarioa eginez, Euskal Herri osotik gure artera datozen ume eta gazteei udan ere euskaraz bizitzeko eta gozatzeko aukera eskaintzen diegu".

BIZI EZAZU UDA EUSKARATIK ETA EUSKARAZ!
ZATOZ EUSKAL UDALEKUETARA!

Informazio guztia eta izen-emateak:
<http://udalekuak.eus/>

5. Udalekuak eta Gazte Oporraldiak

Aurten ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren udako jardueren kanpainaren berri eman nahi dizuegu. Udalekuak eta Gazte Oporraldiak programei buruzko informazio guztia webguneetan ikusi ahal duzue (www.gipuzkoa.eus/udalekuak edo www.gipuzkoa.eus/GO).

Kontuan izan aurretiko izen-ematea **martxoaren 21etik 29ra bitartean** izango dela.

4. Colonias Vascas

¡UN VERANO DE AVENTURAS EN EUSKERA A TU ALCANCE!

Quien quiera vivir en euskera también en verano tiene una oportunidad inmejorable para hacerlo en las COLONIAS VASCAS (a partir de LH1). Han pasado más de 40 años desde que comenzaron a organizarse las colonias íntegramente en euskera, y hoy en día siguen teniendo los mismos propósitos e ilusiones que en sus comienzos: "Realizando un trabajo voluntario, ofrecemos a los niños-as y jóvenes de toda Euskal Herria la posibilidad de vivir y disfrutar del euskera también en verano.

*¡VIVE EL VERANO DEL EUSKERA Y EN EUSKERA!
¡VEN A LAS COLONIAS VASCAS!*

Toda la información e inscripciones:
<http://udalekuak.eus/>

5. Udalekuak y Gazte Oporraldiak

Un año más queremos informarte de la campaña de actividades de verano de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Podrás ver toda la información sobre los programas Udalekuak y Gazte Oporraldiak en las página web (www.gipuzkoa.eus/udalekuak o www.gipuzkoa.eus/GO).

Ten en cuenta que la preinscripción será del 21 al 29 de marzo.

